

ELGERA

BOIZ, MARIA ETA MAIALEN
ENTZUMEN EZA BIZITZEKO HIRU EREDU





- 3 Bilboko euskalgintza
- 4 Elkarrizketa
- 6 Inkesta
- 7 Normalkuntza
- 8 Erreportajea
- 10 Jarduerak
- 11 Literatura
- 12 Musika
- 13 Teknologia berriak
- 14 Ikuskizunak
- 15 Bitxikeriak
- 16 Agenda
- 17 Denborapasak



aurkibidea

ELGERA 7. ZK. ABENDUA

- 18 Auzoak
- 20 Lanbide Heziketa
- 22 Kirola



Argitaratzailea: ELGERA LANTALDEA: Rekaldeberriko BHI, San Adriango BHI, Eskurtze BHI, Unamuno BHI, Botikazar BHI, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Salesianos Deusto HLBIP, La Salle HLBIP, San Inazio BHI ikastetxea eta B01eko Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri Programa. Koordinazioa: B01eko Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri Programa.

Inprimategia: Antza. Ale kopurua: 4.000. Webgunea: www.elgeraldizkaria.wordpress.com

DEUSTUKO IKASTOLA
Unai Foruria eta Nahia Varela

Euskara, ikur garrantzitsua

Joan den azaroaren 13an Deustuko Ikastolako DBH 4.mailako ikasleok Alondegira joan ginen, bertan ospatzen baitzen Berbagunearen 3. edizioa. Hitz eta pitz aritu ginen gu bezalako ikasleekin euskaraz.

Baina, zer ote da Berbagune bat? Hau Bilboko Udalak antolaturiko eskolen arteko ekintza da, Bilboko ikastetxe askotako ikasle guztiok batera gai jakin bati buruz euskaraz hitz egiteko eta hizkuntzaren erabilera sustatzeko asmoz.

Horra heldutakoan, taldetan banatu gintuzten, talde bakoitzean institutu desberdinetako jendearekin batu ginen, eta, egia esan, gauza batek asko harritu gintuen: ikasle askok ez zutela euskaraz hitz egiten, eskolatik kanpo, eta kopuru txiki batek baino ez zekiela zelan mintzatu, harrigarria, ezta? Tristeena izan zen gehienak “D” eredukoak zirela.

Hala ere, gu harro gaude, eman genuen eredua dela eta. Ikastolako gehiengoak euskaraz mintzatu zen, eta horrek asko poztzen gaitu, oraindik euskara ikastolako ikur garrantzitsuena dela esan nahi duelako.

Guretzat sekulako esperientzia izan da Alondegiko 3. Berbagunean parte hartzea, jende berria ezagutzeko aukera izan genuelako eta denon artean gure hizkuntzaren aldeko ekitaldian parte hartu genuelako.



Gorrak (Ibarrekolandako) Batxilerrean

IBARREKOLANDA BHI

Testua: Andrea Ardanaz eta Miren Irureta

Argazkiak: Andrian Svet

Zure inguruan zenbat pertsona ezagutzen duzu entzumena galdu duena edo gorrak direnak? Joan zen urtetik, entzumen arazoak dituzten hiru ikasle izan ditugu gure artean Ibarrekolanda Institutuko Batxilergoan: Boiz, Maria eta Maialen entzumen eza bizitzeko hiru eredu ezberdin.



Elkarriketa batean jardun dugu beraiekin, lehenengo egunetan zer nolako inpresioa eduki zuten, bizitzako beste hainbat inpresio, eta entzulek ezintasun honi buruz gure buruari egiten diogun galderaz.

Nolakoa izan zen zuen lehenengo eguna Batxilerrean?

Boiz: Nire lehenengo egunean oso urduri nengoen inor ezagutzen ez nuelako. Beldur pixkat ere banuen, ez nekien nola komunikatuko nintzen beste ikaskideekin eta. Gainera, ea norbaitek zeinuen hizkuntza jakingo zuen galdetzen nion behin eta berriz nire buruari. Jada Batxilergoko bigarren mailan nago, eta integratutako sentitzen naiz beste ikaskideen artean.

Maria: Ezberdina izan zen, nire kasuan, berrira nintzen ikastetxean eta. Nire audifonoa ikusten ez denez eta erakusten ez dudanez, nire ikaskideek ez zekiten nire ezintasunari buruz. Beraz, nire lehenengo eguna institutuaren, beste ikasleren baten modukoa izan zen. Halaber, aurkezpenak egiten hasi gineanean sumatu zen nire ezintasuna. Jendea hobe hitz egiteko eskatzen nien eta hauek arraro samar begiratu zidaten. Orduan, audifonoa nuela eta zenbait gauza zail egiten zitzaidala entzutea azaldu behar izan nien.

Maialen: Aurreko urteetan, ikastetxe berdinean ikasi nuen. Hori dela eta, beldur nion aldaketari. Baina, argitu behar dut aldaketa ona izan zela, zeren eta jendeak betidanik ezagutuko banindu bezala tratatzen ninduen hasieratik.

Nolakoa da zuen komunikabidea institututik kanpo?

Boiz: Ez dut izaten komunikazio arazo handirik eguneroko bizitzan. Erosketak egitera joan beharra dudanean adibidez, dendariari entzuten ez dudala esaten diot, ahotsaz gain, beste modu batean komunikatu ahal izateko; mugikorrean idatziz adibidez. Gorra naizela abisatzen ez dudanean ordea, atzerritarra naizela pentsatzen dute askotan.

Maria: Ez dut gorra naizela esaten. Baina, jendeak arraro begiratzen didanean, orduan, entzumen arazoak ditudala esaten dut.

Maialen: Jendearekin hitz egiten dudanean, normalean gorra ez naizela pentsatzen dute, baina, entzumen arazoak ditudala esaten dudanean, askok onartu egiten dute eta beste hainbat uxatu egiten dira.

Diskriminatuak sentitzen zarete gizartearen barnean?

Maria: Kasu batean baino gehiagoan bai, jendeak ezberdina zarela pentsatzen du eta. Batzuek nahi gabe egiten dute. Ez dira diskriminatzen hari direla konturatzen.

Boiz: Gizartean ez naiz diskriminatua sentitzen, baina zenbait kasutan bai. Telebistaren kasuan, adibidez. Ez dituzte azpiztituluak ipintzen, eta kasu horietan ez dut ezer ulertzen eta azkenean telebista itzaltzen dut.

Gustatuko litzazueke zeinuen hizkuntza jende gehiagok jakitea?

Boiz: Ez dut pentsatzen hori derrigorrezkoa denik, baina egia da, pertsona batekin hitz egiten aritzean, keinuak eta zeinuak exageratzea gustatuko litzaidakeela. Asko erraztuko luke komunikazioa bion artean. Klaseko hainbat unetan, edonork txiste bat egiten duenean, lekuz kanpo sentitzen naiz denak barrezka ikusten ditudanean, eta pertsona bati galdezka egon behar izaten dut: "Zer gertatzen da?" esanez, baina honek geroxeago kontatuko didala erantzun dit maiz.

Maialen: Nik apur bat entzuten dut, baina gehienetan ez dut ezertxo ere ulertzen, beraz, Boizekin bat nator.

Arazo honi aurre egiteko soluzioren bat dagoela pentsatzen duzue?

Maria: Niretzako soluzioetako bat klaseetako hizketaldi edo debateetan parte hartzea izango litzateke. Jendeak pazientzia apur batekin motelago eta jostekulatu hitz egingo balu, ez litzateke arazorik egongo.

Maialen: Niretzako soluzioa, gorra den pertsonari atentzio gehiago jartzea da.

Boiz: Gizartean gehienak entzuleak zarete eta gorra gutxiago. Imajinatu dezagun egoera berbera baina alderantziz. Soluzioetako bat hizkuntza berbera izango litzateke.



ROSA sukaldaria eta etxeakoandrea

Gaur egun ustelkeria eta ustelkeriarekin zerikusia duen guztia oso larria da. Hiritarrok ipini behar dugu dirua aurpegi gogor batzuk oinarritzko lapurtu digutelako: heziketa, osasuna, gazteen etorkizuna... Ikasten egon beharko luketenek ezin dute bekak kentzen ari direlako.

GUILLERMO DBHko irakaslea

Baloreen falta. Arrazoi askorengatik. Alde batetik, ikusten dugu munduan dauden desberdintasunak, baina bakoitza bere lekutxoan bizi da, eta ez zaio gauza handirik inporta ondokoari gertatzen zaiona.



MANUELA tabernaria

Bistakoa da: krisia eta langabezia. Niretzat, hauek dira bi gai nagusiak, lan gutxi dugu tabernan, ia ezer ere ez. Guk, gainera, obra bat daukagu aurrean urte bi baino gehiago luzatu dena. Hemen Euskadin duela bi urte hasi ginen krisia benetan nabaritzen, eta aurrean are gehiago zabalduta. Ezetz esaten zuten, baina krisia larriagoa izan da.



ENRIQUE igeltseroa

Elkartasunik eza. Bakoitza berean dabil, besteengan pentsatu gabe. Bizitza azkarregiak daramatzagu, teknologia gehiegi. Gehiago arduratzen gara mugikorraz alboko pertsonaz baino.



JONATHAN harakina

Jendeak ez dauka non ikasi eta non lan egin. %20a edo... langabezian dago, hori nire ustez, garrantzitsua da. Arazoa ez da hobetzen, estankatuta dago. Ez dakit hobera joango den, baina oraintxe bertan ez dut uste.



MAITANE Lanbide Heziketako ikaslea

Gizartea oso arduratuta dago mugikorrarekin, beti egon behar dute harremanetan norbaitekin hitz egiten edo zerbait bilatzen, menpekotasun bat bezalakoa da. Esaten dute mugikorra oso ona dela, jendearekin komunikatzeko, baina nik uste dut ezetz, alderantziz dela, komunikatzeko egoera onak galtzen direla.



REKALDEBERRIKO BHI
DBH 2.1

Barria, esperientzia ahaztezina

Barria barnetegia, Araban dagoen Euskal Girotze Barnetegia da. Rekaldeberri Institutuko 2.DBHko ikasleak joan ginen gure tutorearekin taldea gogortzeko eta gure artean euskara gehiago erabiltzeko. Itziar, Gaizka eta Monikarekin egon ginen lau egunez.

Euskal Girotze Barnetegia 2005-06 ikasturtetik aurrera Barrian dago, XII. mendeko monasterio batean.

Paisaia oso polita da eta denok harrituta geratu ginen.

Gure taldeak denbora gehiena klaustroan eman zuen atsedenaldietan eta irakasleekin jokoak egiten.

Barrian ekintza asko egin genituen: bizikletaz ibili, jokoak egin, denbora librean futbolekin jolastu, ibilaldiak egin... Animaliak ere ikusi genituen: apoak, behiak, ardiak, oiloak eta oilarrak esate baterako. Herri batera joan ginen eta bertan jolas batera jolastu genuen eta oso ondo pasatu genuen.

Gure logelak ondo zeuden, baina dutxa gehiago izan balituzte

hobeto moldatuko ginatekeen. Jantokia eta janaria gustukoak izan ziren. Begiraleak, sukaldariak eta hango jendea oso alaiak eta jatorrak dira.

Esperientzia ahaztezina izan da denontzat, denak oso pozik etorri gara Bilbora, baina triste ere bai, denbora gehiago egon nahi genukeelako. Oso ondo pasatu genuen.





Ez dute leku itxian ospatu Bilboko 13 ikastetxeko 2.000 ikaslek Euskararen Eguna. Klean egin dute, elkarri eskua eman eta katea osatuz. 'Euskaraz, zubiri zubiri' lelopean, bi kilometroko ibilbidea bete dute itsasadarraren bazter batean eta bestean, Arrupe zubia eta Zubi Zuri bitartean, ekimen originalean. Beste ikasle batzuk ikastetxean geratu ziren, eta hamaikatzko ekimenekin ospatu zuten Euskararen Eguna.





Bilbo berdea

Joan den urrian mendi buelta egin genuen Buia eta Bolintxu inguruan Unamuno BHIko ikasleok.

Zeberitxa jauregia eta Bilboko baserri zaharrenetakoa ikusi genituen; interesgarria zen arkitektura. Gero, harrobi batera joan ginen gizakiak naturan egindako aldaketak ikusteko. Han hamaiketakoa jan genuen.

Bolintxu ibairako bidean, landare inbaditzaile batzuk ikusi genituen, Hego Amerikakoak. Ibai ertzetan baso hostogalkor ugaria zegeon, baina mendi hegalean gizakiak landaturiko pinuak.

Erreka bazterretan biodibertsitate gune garrantzitsuena dago, baina orain, *Supersur* autopistaren adar bat egin nahi dutenez, arriskuan dago.

Txangoan biodibertsitateari buruzko gauza ugari ikasi eta ederto pasatu genuen.





PIZTIAREN BEGIAK

Izenburua: *Piztiaren begiak*
 Idazlea: Alberto Ladron Arana
 Argitaletxea: Elkar, 2012

Gutziz gomendagarria da

Alberto Ladron Aranak idatzitako suspense eta misteriodun liburu hau benetan txundigarria iruditu zait; izan ere, akziozko film batek eskatzen duen etengabeko arreta izatea eskatzen du eta.

Alde batetik, lexiko aberatsa eta ulerterraza dauka, eta ondorioz, bi etsaien arteko "ehizan" murgiltzea lortzen du liburuak.

Beste alde batetik, aipatzen den ingurunea izugarritzko xehetasunez deskribatuta dago, eta askotan ezinezkoa suertatu zait begiak paperetik aldentzea.

Gutziz gomendagarria da, beraz, *Piztiaren begiak* irakurtzea. Bizitzan behin irakurri beharreko liburuetako bat, dudarik gabe.

Eneko Cuesta



Istorioak pixkanaka harrapatu egin ninduen

Irakurtzen hasi nintzenean liburua apur bat aspergarria iruditu zitzaidan, ez bainuen ondo kokatzen ez istorioa ezta pertsonaiak ere, dena metatuta zegoen, eta ez nekien nork hitz egiten zuen norekin, non...

Baina liburuaren lehenengo hogeita hamarren bat orri irakurrita, istorioak pixkanaka harrapatu egin ninduen, eta ezin izan diot inolaz ere irakurtzeari utzi.

Misteriozko eleberri aparta eta originala da, bai giroa interesgarria delako, bai pertsonaiak oso landu dituelako.

Primerako liburua da, eta benetan gomendatzen dizuet irakurtzea!

Alex Mendez



Josu Lopez, Dani Sanchez, Iñigo Casado eta Aitor Garcia

CROSSOVER

Aupa! Gu Crossover taldea gara eta La Salleko DBH 4. mailan gaude. Rock musika talde bat gara eta panorama astintzeko prest gaude. Taldean Josu Lopez (baxua eta ahotsa), Dani Sanchez (gitarra), Iñigo Casado (gitarra) eta Aitor Garcia (bateria) gara. Duela urte bat eta erdi hasi zen gure ibilbidea Bilbo-rockeko lokaletan. Aitorrek elkarrekin jotzeko proposatu zigun besteok musikariak ginela entzun zuelako. Pare bat bertsioarekin saiatu

(atera ez zirelako) eta ikastetxeko lokal bat entseguak egiteko lortu ostean, taldeztat oinarritu ginen. Apirilean Harrapazank lehiaketako finalera heldu ginen gure abesti batekin: *Gitarra eskuan hartuta*. Hortik beste abesti batzuk konposatzen hasi ginen, eta horrela heldu gara honaino. Aurtengo udan demo bat grabatu dugu gure bi abestirekin: *False* eta *Gitarra eskuan hartuta*. Guk aurrera jarraitu eta gure musikaz gozatu nahi dugu.



TXISTULARI

Kaixo! Nagore Monedero naiz, hamaika urtez musika eta dantza talde batean dabilen La Salle ikastetxeko Batxilergoko 2. mailako ikasle bat. Nire taldea, Beti Jai Alai, duela urte asko sortu zen; izan ere, bertan euskal dantzak dantzatzeko eta instrumentuak jotzeko ikas dezakegu. Adibidez, nik eurei esker instrumentuak jotzen dakit, eta horrexegatik orain hainbat lekutara irteera asko egiten dut, eta hori jendea ezagutzeko ondo dago, beste talde batzuekin elkartzen gara eta. Hori bai, astean hirutan entseatzera joan behar dut, txistuaren soinua hobetzeko eta emandakia primeran egiteko. Hala ere, nahiz eta askotan gogorregia izan, hemendik aurrera nire txistuaren soinua hobetzea eta ahalik eta azkarren txistulari profesional bihurtzea espero dut.

Nagore Monedero



Lehen Hezkuntzakoak teknologiaren alde

Azaroaren 13an, Deustuko Ikastolako LH6. mailako gela batera joan ginen inkesta txiki bat egitera. Gure lanaren helburua ordenagailuei buruz informazio gehiago edukitzea zen, eta lortu genuen, parte-hartzaile ugari egon baitziren, gure galderak erantzuteko.

Lehenik eta behin, ordenagailuak noiztik erabiltzen zituzten galdetu genien. Haiek LH5. mailatik erabiltzen zituztela esan ziguten, hau da, aurten haien bigarren urtea zela. Baina orain erabilera gehiago ematen zietela esan ziguten, iaz eskemak egiteko bakarrik erabiltzen zituztelako, eta aurten, ariketak, idazlanak, hitzaldiak etab. egiteko erabiltzen zituztela, baina batez ere, informazioa bilatzeko.

Gehienetan, bakoitzak ordenagailu bat duenez, bakarka egiten dituzte lanak. Hala ere, batzuetan, taldeka ere jarduten dira. Astero erabiltzen dituzte ordenagailuak eta ez dute ordutegi finkorik jarraitzen, gelan ordenagailuak gordeta dituztelako eta nahi dutenean har ditzaketelako.

Hau esanda, ikasle bakoitzaren iritzia garrantzitsua iruditu zitzaigunez, eurek ordenagailuak erabiltzeari buruzko iritzia galdetzea erabaki genuen. Denek bat egiten zuten beren ikaskideekin, ordenagailuak nahiago zituztela lan egiteko. Alde batetik, dibertigarria, ezberdina eta txukunagoa zelako eta, bestetik, akatsak zuzentzen gutxiago nekatzen zirelako.

Nahiz eta alde onak eduki, konturatu ginen alde txarrak ere bazituela ordenagailuekin lanean aritzeak. Adibidez, wifi arazoak, bat-batete apurketak, pizteko arazoak...

Bukatzeko, esan dezakegu, nahiz eta arazoak egon, Lehen Hezkuntzako ikasleek teknologia erabili nahiago dutela.



Botikazar BHI

ARKIMIDESEN PRINTZPIOA

Maskarada taldea

Obra honetako protagonista igeriketako monitorea da, ume txikiei irakasten die igeri egiten eta epaitua izango da beraieganako hurbiltasunagatik eta maitekorra izateagatik. Antzezlanak erakusten du zenbat min egin dezaketen zalantzek eta akusazioek. Oso eszenografia erakargarria erabiltzen dute; eszenetako batean, igerilekuan gaude eta bi emakume islatzen dira paretan igeriketan, giroan hobeto murgiltzeko. Eszenen denbora ere argi geratzen da, horretarako, dena jarraian egin beharrean, eszena batzuk errepikatu egiten dira beste angelu batetik eta

segituan jarraipena, honela gutxika-gutxika ikuslea datu guztiak batzen eta lotzen doa. Hizkera kalekoa da, ulergarria eta ezaguna. Iraupena egokia, ez luzeegia ezta motzegia ere, ordu eta erdi deskantsurik gabe, horrela ez da antzerkiaren haria galtzen. Ez dago apaingarri aldaketarik, ez da behar, istorioa denbora guztian leku berean gertatzen baita kiroldegi bateko aldageletan. Lagun bati gomendatzekotan, gaur egungo berriei dakien eta misterioak gustuko dituenari gomendatuko nioke.

Olaia Alberdi



PANKREAS

Tartean Teatroa

Urriaren 23an, Botikazar institutuko 2. Batxilergoko ikasleak Campos antzokira hurbildu ginen *Pankreas* antzezlanaz gozatzerako, hona hemen gutako batek obra honi buruz diona: Antzezlanaz zeharo gustatu zait, istorioa aurrera zihoan heinean indar handiagorekin hartzen nuen gero zer gertatuko ote zen jakiteko eta esan behar dut amaierak ezustekoan harrapatu ninduela. Trataturatutako gaiak: adiskidetasuna, eutanasia, alzheimerra... berezko garrantzia dute bizitzari zer zentzu hartzen diogun pentsatzeko, nahiz eta modu barregarrian aurkeztu batzuetan. Eszenografiari buruz, oso sinplea da, kolore

berekoa eta objekturik gabekoa, sinpletasun honek ematen dio antzezlanari bere puntua, irudimena martxan jartzen baitu. Obra bertsoz eginda dago eta honek zaildu baino, nire ustez, publikoaren arreta bereganatu eta istorioaren ildoak jarraitzeko bidea ematen du, gainera antzezlanak daukan alde komikoari ere laguntzen dio hainbatetan. Bukaera tragikoa den aldetik, oso bortitza da eta harriturik uzten du ikuslea baina, hala ere, modu barregarrian aurkezteko gai direnez antzezlanaz tragikoa baino komikoagoa ikusi dut nik.

Aitor Soler

Euskara bitxian idatzitako hamaika kartel topatu ditugu han-hemenka. Barre apur bat egin nahi duzue besteen hanka-sartzeekin?



DVDaren ugalketa uste baino arruntagoa

Oharra: Margotutako RECIEN-a!



Ez behekoa, ez erdikoa,
GOIKO MELOIA onena

Hondakinez betetako denda



- Oye, ¿cómo es embarque en euskera?
- Ni puta idea, vamos a poner hegazkiner y a tomar por culo.
- No hay huevos.



Hegazkinean sartu edo HEGAZKINER

Kultura ekitaldiak

BIZKAIKO BERTSOLARI FINALA

Eguna: 2014-12-20

Ordua: 17:30

Lekua: Bilbo Arena, Miribilla

www.betsozale.eus



SAN TOMAS AZOKA

Eguna: abenduak 22 astelehena

Lekua: Bilboko Plaza Berria eta Areatza



ERAKUSKETA: HIPERRREALISMOA

Lekua: Bilboko Arte Ederretako Museoa

Eguna: urtarilaren 19ra arte

Gazteek doan dute sarrera igande
arratsaldeetan eta asteazkenetan



INAUTERIAK

Bilbon: otsailak 14-15-16-17

Deustun: otsailak 7-8

Santutxun: otsailak 28 - martxoak 1



KORRIKA 2015


Lekua: Urepeletik Bilbora

Eguna: martxoaren 19tik 29ra arte

www.korrika.eus



10. txerriaren okela

[illegible]

Sarriko

Deustu eta Ibarrekolanda artean dago Sarriko. Ingurukoek esaten dute Sarriko ez dela inoiz auzo bat izan, metroko geltokia baino. Han bizi direnak ez daude ados honekin. Eztabaida ederra!

Toki ezagunenak: Sarriko parkea
Orain edonor sar daiteke hona baina lehen Zubiria familiaren lurrak ziren eta han bizi izan ziren. Gaur egun, euren etxebizitzak Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea dira, 1955 urtetik.

Parkean Larrako dorretxea ere aurki dezakegu. Hona ekarri zuten San Inazio auzotik.

Ibarrekolanda enparantza
Musika kontserbatorioa koka-

tzen da hemen 2007 urtetik. Enparantzan jende asko eser-tzen da musika entzun ahal delako lur-rean dauden bozgorai-luetatik. Zoragarria da!

Metroko geltokia ere enparantza honetan dago. 1995ean inauguratu zen. Oso ikusgarria da sar-bidetik nasetara altuera handia dagoelako. Ilogailuan ibiltzea harrigarria da!

Bitxikeriak: Don Boscoren Biribilgunea

2013an gure ikastetxe ondoan dagoen biribilguneari Don Bos-co izena jarri zioten. Eta gu han izan ginen.

“Kaiola” / “La jaula”

Horrela deitzen diogu Sarrikoko parke ondoan futbola, saski-ba-loia eta hockey jolasteko dagoen toki itxiari. Primeran dago!

Komunikazioa

Metroa: 1. eta 2. lineak
Busak: 10, 13, 18 eta 71
Bidegorria dago



SALESIANOS DEUSTO
Iratxe Hurtado, Leire Alonso, Sandra Hernandez, Anne Perez,
Ane Predigueiro, Odei Gomez, Ruben Cobo eta Sergio Andreu



NAGUSI AZOKA

Gutariko batzuk oraindik ez ginen jaio lehendabiziko Nagusi Azoka antolatu zenean. Azoka honen 18. edizioa bisitatu dugu. Eguraldi zoragarria izan dugu, hobe bisita bat egiten klasean egotea baino.

Interesgarria izan da. Adineko jende asko zegoen baita gazteak ere; batez ere eskolakoak eta Lanbide Heziketako ikasleak. Pertsonen Arretako lehenengo mailako klase bi joan gara, erdarako taldea eta euskarakoa. Gustatu zaigu beste klaseko jendearekin harremana izatea; korridoreetan egunero topatzen gara, baina ez dugu elkar ezagutzen.

Bisita hau egin ostean, apur bat gehiago ezgutzen gara. Klaseko jendea beste testuinguru ezberdin batzuetan ere ezagutu dugu eta oso gustura egon gara.

Azokan adineko pertsonen zuzendutako informazio ezberdina ematen zen: elkarte askok

(Parkinson Elkarte, Gurutze Gorria, Mugarik Gabeko Medikuek...) euren taldeen ekintzak eta programak azaltzen zituzten, eta nahi besteko informazioa eskuragarri zegoen. Orokorrean, stand bakoitzean zegoen jendea oso atsegina zen eta, inolako arazorik gabe, erantzuten zizkiguten guk egiten genituen galderak.

Erdarako taldeko ikasle batzuek elkarriketak egin zituzten handik zebiltzan adineko pertsonen beren ikuspuntuak eta iritziak eza-gutzeko.

BEC oso handia denez egun horretan Nagusi eta beste azoka bat antolatuta zeuden.



Beste azoka *Sin barreras* deitzen zen eta pertsona ezinduei zuzenduta zegoen; han ezinduak hobeto bizitzeko denetariko baliabideak ikusi genituen. Erderako taldeko batzuk handik buelta bat eman zuten, eta guztiz interesgarria zela esan ziguten.

Adibidez, gurpildun aulkiak erabili ahal ziren, pertsona ezinduen paperean hobeto kokatzeko, eta haiek dituzten muga fisikoez berehala ohartzen zinen. Aukera ona izan genuen bertan zeuden pertsonekin bakoitzak sentitzen zuena komentatzeko.

Eskolatik kanpoko jende ezagunarekin ere topatu ginen, eta oso gustura ibili ginen Bilbora bueltatzeko ordua heldu arte.

Honelako irteerak interesgarriak dira nahiz eta une batzuetan, ostirala izanda, etxera joateko eta astea bukatutzat emateko gogo handia izan.



IBARREKOLANDA BHI
Gaizka Ortiz eta Irati Otxoa
Argazkiak: Alaitz Martinez



Surf egiten edo

Ikasturte honen hasieran Institutuko Heziketa Fisikoko irakasleek Sopelako Surf eskolara eraman gintuzten surf egiten apur bat ikasteko 1. mailako ikasle guztiak, hori bai, txandaka. Hona hemen talde baten esperientzia.

Zelako eguna... Hondartzara ailegatze-rakoan, goitik ikusten zen paisaia osoa. Egundoko eguraldia suertatu zitzaigun. Hasieran ura izoztuta zegoela zirudien eta horrek uretan sartzeko gogoia kendu zigun. Harea zegoen mailara iristeko, arrapala handi bat jaitsi behar genuen eta ia mundu osoa erortzekotan egon zen.

Azkenean hor geunden, neoprenoak jartzen hor biluzik zeuden zahar batzuek arraro begiratzen ziguten bitartean. Egia esan, arraroago begiratzen genuenak gu ginen, haiek baino. Neoprenoak jarrita, surf tabla bat hartu genuen eta harea ukitu genuen hainbeste itxaron ondoren.

Hor zeuden monitoreak, 30 ikasleko talde bati ahal izan zuten moduan klase teoriko bat eman ziguten. "Klasea" emanda zegoen, ur izoztu horretan sartzeko ordua zen eta azkenik, hori egin genuen.

10 metrotako zabalera batean 30 ikasle sartu behar ginen eta zenbakiek ez zuten ematen baina hala ere, ez dakit nola, hor sartu egin ginen.

Hurrengo bi astetan ez genuela urik edan gogoratzen dut, egun horretan itsaso erdia sartu zitzaigun eta gorputzean. Hala ere, ora-in arteko kurtsoko egunik dibertigarriena izan zen.






Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2014

Finala hastekotan
e(g)in zen topaketa
Bizkaiko txapelketan
bi kanporaketa
nor joan edo ez joan
e(g)in zen garbiketa
nork irabaziko du
aurten txapelketa?

Maite Sarasola

Hasteko ordua da
hau da nire agurra
abestuizu jendeak
botatzeko adurra,
baina epaileekin
ez izan maltzurra,
Bizkaiko txapelketan
sartuizu muturra

Xabier Ezkurra




-uskaraz!

-uskaraz!



-uskaraz!

-uskaraz!



-uskaraz!